




# **EBALUAZIOA**

## **ETHAZI IKASKUNTZA**

## **EREDUAN**

## **AURKIBIDEA**

|                                                                   |           |
|-------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>EBALUAZIOARI SARRERA.....</b>                                  | <b>3</b>  |
| 1 Ebaluazioaren Ikuspegia .....                                   | 4         |
| 2 Rol Aldaketa .....                                              | 7         |
| <b>EBALUAZIOAREN DISEINUA.....</b>                                | <b>9</b>  |
| 1 Ebaluazio diseinua<br>Ethazi Ikaskuntza-ereduaren Barruan ..... | 10        |
| <b>EBALUAZIOAREN OSAGIAK</b>                                      |           |
| <b>GAITASUNEN DEFINIZIOA .....</b>                                | <b>12</b> |
| 1 Gaitasunak Ethazi Ikaskuntza Ereduan .....                      | 13        |
| 2 Testuinguruaren Analisia .....                                  | 15        |
| 3 Ikaskuntza Klabeen Identifikazioa .....                         | 16        |
| 4 Gaitasunen Deskribapena .....                                   | 17        |
| <b>ERRUBRIKA ETA LORPEN ADIERAZLEEN DISEINUA .....</b>            | <b>18</b> |
| 1 Errubrika .....                                                 | 19        |
| 2 Lorpen Adierazleak .....                                        | 22        |
| <b>ERRONKA ETA EBIDENTZIAK.....</b>                               | <b>24</b> |
| 1 Erronken Ezaugarri Orokorrak .....                              | 25        |
| 2 Erronken Diseinua .....                                         | 26        |
| 3 Ebidentziak.....                                                | 29        |
| <b>FEEDBACK ETA 360°KO EBALUAZIOA .....</b>                       | <b>32</b> |
| 1 Feedback-a .....                                                | 33        |
| 2 Zertan Datza Feedback-A? .....                                  | 34        |
| 3 Feedback-aren Plangintza .....                                  | 35        |
| 4 Hausnarketa.....                                                | 36        |
| 5 360°ko Ebaluazioa .....                                         | 37        |
| <b>KONPROMISOAK.....</b>                                          | <b>39</b> |
| <b>KALIFIKAZIOA .....</b>                                         | <b>44</b> |

---

# **Ebaluazioari Sarrera**



## **Ebaluazioari Sarrera**

### **1 – Ebaluazioaren Ikuspegia**

Gaur egungo gizartearen ezaugarri nabarmenena, maila guztietan, etengabeko aldaketa dela esan genezake. Beraz, pertsona guztiek, etorkizuneko egoera aldakor eta behar edo erronka berrietara aurre egiteko prest egon behar dute.

Beraz, egokitze-eskaera horri erantzuteko, XXI. mendeko profesionalek etengabe ikasten jarraitzeko gaitasuna garatu behar dute. Hau da, “ikasten ikasteko” gai izan behar dute.

Ethazi ikaskuntza-ereduak ikasleek gaitasun horiek lortzeko beharrezko testuingurua ahalbidetzea du helburu, norbere ikaskuntza prozesuaren protagonista izanez.


Ebaluazio sistemak ikasleek zer ikasi eta garatu behar duten ulertzea erraztu behar du, bere garapenaren protagonismoa eta kontzientzi hartzea erraztuz.

Ebaluazioa, beraz, ikasleek norbere ikaskuntzaren ardura har dezaten tresna da. Ikasleak bere ikaskuntzarekiko jarrera aktibo eta kontzientea garatzea lortu nahi da. Kontzientzia hartzea lortzeko, ibilbidean zehar, hausnarketa eta konpromisoak hartzeko momentu ezberdinak eskaintzen dira.



**ETENGABEKO IKASKUNTZAREN BEHARRA**

### **IKASLEEK BERAIEN IKASKUNTZAREN PROTAGONISTA IZAN BEHAR DUTE**



Ingurune sozial eta produktiboaren etengabeko aldaketetara egokitzeko, ikaskuntzaren garapena egon behar du, honenbestez, ebaluazioa modu ebolutiboan ulertu beharko da, kalifikazioaz haratago.


Ethazi ikaskuntza-eredua, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzan oinarrituta dago. Erronkak lanbide-errealitatera egokituta dauden egoera problematikoak dira, eta ikasteko tresna gisa balio dute.

Erronketan oinarritutako ikaskuntzak aukera ematen die ikasleei:

- Bizipenetik ikasteko.
- Bere ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartzeko.
- Lortutako informazioa prozesatzeko.
- Eta ikaskuntza modu logikoan ulertzeko.

Hau dena gauzatzeko, talde-lana baliabide nagusia da, iritzi desberdinak edo erabaki komunak hartzea eragiten baitu. Are gehiago, ikuspuntu desberdinak eta komunikazioa sustatuz, ikaskuntza askoz eraginkorragoa eta esanguratsuagoa da ikasleentzat.

## ELKARLANEKO IKASKUNTZA EREDUA



Testuinguru honetan, ebaluazioa funtsezko tresna da:

Horretarako, ikasleek jakin behar dute zer ikasi behar duten. Ziklo-ikuspegia eskaintzen duten errubriken multzoan islatutako gaitasunen mapa baten bidez.

Gainera, feedback-a edozein unetan ikasitakoa argitu, kontrastatu eta hausnartzeko tresna garrantzitsua izango da.

Egiaztatze hori 360°-ko ikuspegitik egiten da, hau da, autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa integratuz.

Guztiarekin ere, kalifikazioa beste elementu bat da ebaluazioan, ikaskuntza-prozesu osoan lortutako lorpenei erantzuten diona hain zuzen ere.



## 2 – Rol Aldaketa

Ethazi ikaskuntza-ereduak ikaslea ikaskuntzaren erdigunean kokatzen du, zikloko gaitasunen garapenean duten erantzukizuna sustatuz. Ondorioz, ikasle zein irakasle-taldeek rol aldaketa suposatzen du.



Ikasleen rolak:

- Erronken bidez eta elkarlanean lan egiteko gai izatea.
- Norbere ikaskuntzaren kontzientzi hartzea dakar, aldizkako hausnarketa bidez gaitasun maila aberasteko.
- Ikasitakoa aplikatuz, arazoei irtenbidea aurkitzea dakar, egoera eta testuinguru berrietara egokituz.
- Azken finean, era autonomoago batean ikastea, beraien ikaskuntza eta garapenari lotutako konpromisoak hartuz.




Irakasle-taldeari dagokionez, ikaskuntza-prozesuaren barruan duen rol berriak ezaugarri hauek ditu:

- Ikaskuntza prozesuan zehar, ikasleen laguntzaile eta gidari izatea.
- Zikloaren ikuspegia izatea, irakasle talde osoarekin koordinatuta eta partekatuta.
- Erronkak sortu eta dinamizatzeko gai izatea.
- Talde-lanaren bidez ikasleen parte-hartze aktiboaa eeta hausnarketa bultzatuko duten ikaskuntza-esperientziak proposatzea.
- Ikasleek egindako lanari buruz, haiei pentsaraztea eragiten duen feedback-a eskaintzea.
- Eta ikasleen autonomia eta konpromisoen eskuratzea bultzatzea haien ikaskuntza garapenarekiko.

Testuinguru honetan beraz, nahitaezkoa da konfiantza giro bat sortzea non akatsak, ikaskuntza prozesuaren funtsezko alderdi bat bezala ulertzen dira. Honenbestez, ikasleei konfiantza helaraztea ezinbestekoa da, haiek sentitu dezaten irakasle taldea beti laguntzeko prest dagoela gaitasunak eskuratzeko prozesu horretan.

Amaitzeko, Ethazi ikaskuntza-ereduaren baitako ebaluazio-prozesuak hainbat balio garrantzitsu ematen dizkio ikaskuntza-prozesuari:

- Lehenik eta behin, ikasleak beraiei ikaskuntzaren arduradunak dira, proposatutako testuinguruarekin bat egiten dituzten konpromisoak eskuratuz.
- Irakasle-taldeak heziketa-zikloari buruzko ikuspegi komuna eta partekatua du.
- Ikasgelan, akatsa ez da modu negatiboan bizitzen, ikasteko iturri gisa baizik.
- Etengabe hobetzeko aukerak sortzen dira.
- Pentsamendua ikusaraztean, ikaskuntza modu eraginkorragoan ebalua daiteke.
- Ikaskuntza-prozesuaren ikuspegi ebolutiboa planteatzen da, testuinguru sozioekonomiko aldakorrari erantzuten diona.
- Eta, azkenik, ikasleen feedback-ari ematen zaion garrantzia lagungarria da ikasleek beren ikaskuntza modu kritiko eta proaktiboan berresteko. Konpromisoen bidez ikaskuntza-helburu argi eta zehatzak lortuko dituzte norbere erantzukizuna hartuz.





---

# **Ebaluazioaren diseinua**



## **Ebaluazioaren Diseinua**

Ethazi ikaskuntza-ereduak ikasleak ikaskuntzaren erdigunean kokatzen du, zikloko gaitasunen garapenean duten erantzukizuna sustatuz. Ikus dezagun zein den ebaluazioa diseinatzeko prozesua eta zer eragilek esku hartzen duten.

### **1 – Ebaluazio diseinua ethazi ikaskuntza-ereduaren barruan**

Lehenik eta behin, irakasle-taldeak zikloaren profil profesionala zehazten du. Horretarako, enpresa eta gizarte testuingurua aztertu eta ikasleek zikloa bukatutakoan eskuratu beharreko lanbide-profilak izan behar dituen funtsezko gaitasun teknikoak eta zeharkakoak identifikatzen ditu.

Gaitasun horiek identifikatu ondoren, deskribatu egin behar dira, eta horiek eskuratzeko ikaskuntza-etapak edo -mailak ezarri. Ondoren, maila bakoitzeko lorpen-adierazleak ezartzen dira. Horrek guztiak zikloko gaitasun mapa osatzen du, irakasle-taldearentzat zein ikasleentzat erreferentzia izango da.

Puntu honetan gogorazi behar dugu, Oinarrizko Diseinu Currikularraren Ikaskuntza Emaitzak mapa honetan daudela.

Mapa honek, irakasle-taldeari erronka bidezko ikaskuntza prozesua diseinatzen laguntzen dio, espero diren ikaskuntzekin bat datorren ziklo-egitura sortuz.

Ondoren, ikasleek elkarlanean ebatzi beharreko erronka zehatzak diseinatzen dira. Horretarako, erronka bakoitzean proposatuko den testuingurua kontuan hartu behar da, lorpen-adierazleetan modu zehatzagoan adierazten diren ikaskuntzak eskuratzen joateko.

Testuingurua zehaztu ondoren, irakasle-taldeak (erronkei) dagokion dinamizazioa erabakitzen du, ebidentzien bilketa esanguratsua izan dadin. Jarduera honetan ebaluazio-baliabideak sartzeari gogoan hartu behar dugu, hala nola, portafolioa, pentsamendu-errutinak, hausnarketa-egunerokoa, etab.

Sistemakikoki, irakasle-taldeak, feedback momentuak zehazten ditu non ikasleek, ikaskuntza konpromiso nahiz hauei lotuta dauden prozesuei buruzko hausnarketa egin behar dute. Horretarako, 360°ko ebaluazioa gauzatzen da.

Feedback-a eta hausnarketa lagungarriak dira ikasleek ikaskuntza-helburuak lortzeko duten erantzukizuna bereganatu dezaten, konpromiso bitartez.

Ebaluazio-prozesu hau amaitzeko, beharrezkoa da irakasle-taldeak azken kalifikazioa irizpide komun araberak definitzea, hala nola modulu bakoitzean gaitasun teknikoei eta zeharkakoei emango zaien pisuaren arabera.

## EBALUAZIOA ETHAZI IKASKUNTZA EREDUAN

### -EBALUAZIOAREN DISEINUA

#### 1 ZER IKASI behar duten argi izatea

Profil profesionala zehaztu

- Testuingurua aztertu
- Gaitasunak identifikatu eta deskribatu

#### 2 IKASKUNTZA IBILBIDEA diseinatu

Ikaskuntzaren ikuspegi globala izatea

- Ikaskuntza mailak eta urratsak definitu
- Lorpen adierazleak definitu

#### 3 IKASLEAK ERDIGUNEAN KOKATU BEHAR DITUGU



#### 4 KONPROMISOAK hartzeko TRESNAK definitu

Ikaskuntzaren erantzukizuna aktibatu

- Hausnarketa-uneak ezarri (feedback eta 360° ebaluazioa)
- Hausnarketarako errutinak eta dinamika diseinatu

#### 5 KALIFIKAZIOA

Moduloaren azken nota lortu

- Irizpide amankomunak
- IE-n analisia

#### 6 ERRONKAK diseinatu

Ikaskuntzako testuinguruak zehaztu

- Zikloaren ibilbidea egituratu
- Ebidentziak tresnekin lotu

---

# **Ebaluazioaren osagaiak**



---

## **Gaitasunen definizioa**




## **Gaitasunen Definizioa**

### **1 – Gaitasunak Ethazi ikaskuntza eredu**

Ethazi ikaskuntza ereduaren testuinguruan “gaitasuna” eta “ikaskuntza emaitza” hitz teorikoak baliokide gisa erabiltzen dira.

Ikaskuntza emaitza, edo gaitasunei buruz hitz egiten dugunean, gaitasun tekniko, nahiz zeharkakoei erreferentzia egiten diegula azpimarratzea garrantzitsua da. Hau da, guztiek zikloko perfil profesionala osatzen dutenaren oinarritik abiatzen gara.

Gaitasunei buruz ari garenean, arazo jakin bati aurre egiteko martxan jarri beharreko alderdi teknikoak eta jarrerazkoak buruz ari gara.



#### **GAITASUNEN DEFINIZIOA:**

**Arazo jakin bati aurre egiteko garatu beharreko alderdi tekniko nahiz jarrerazkoak**

Zikloan zehar landuko diren gaitasun klabeak definitzea ezinbestekoa da eta definizio hori irakasle-taldeak egitea, zikloaren ikuspegi adostua sortuz.

Gaitasunak definitzeko, bi alderdi hartu behar ditugu kontuan: testuinguruaren analisia eta ikaskuntza klabeen identifikazioa.

Gizarte- eta enpresa-testuinguruaren analisiaren bitartez, irakasle-taldeak, merkatuak lanbide profilari dagokionez eskatzen dituen gaitasun klabeak zehazten ditu.


Bestalde, zikloko ikaskuntza klabeak identifikatzeak, berekin dakar irakasle-taldeak ikasleek lortu behar dituzten zeregin esanguratsuenen zerrenda egitea.

Puntu honetan, azpimarratu beharra dago, gaitasunak era argi, zehatz eta ulergarri batean azalduta egotea oso garrantzitsua dela; ikasleek zein irakasle-taldeak era berdinean uler ditzaten.

Ziklo batean definitu beharreko gaitasun-kopuruari dagokionez, gomendagarria da kopuru nahikoa izatea, baina, aldi berean, ez handia, irakasleentzat zein ikasleentzat prozedura arina eta erabilgarria izan dadin.

Jarraian, alderdi hauek zehatzago ikusiko ditugu.

## GAITASUNEN DEFINIZIOA



## 2 – Testuinguruaren Analisia

Adierazi dugun bezala, ikasleek heziketa zikloaren zehar eskuratu behar dituzten gaitasun klabeak definitu behar dira. Hortaz, irakasle-taldeak testuinguru sozioekonomikoaren eta lanbide-profil horri dagokion eskaeren eta beharren analisia egitea ezinbestekoa da.



Aipatutako analisia egiteko, irakasle-taldeak hainbat bidetatik jasotzen duen ekoizpen-sareari eta gizarte-inguruneari buruzko informazioa erabiltzen du:

- Testuinguru horretan duen lan-esperientziatik etor daiteke.
- Baita irakasle-taldeak berak inguruko enpresekin duen harremanetatik.
- Beste informazio-iturri baliotsu bat ikasleek enpresetan egiten dituzten praktikak dira, horietan lanbide-profila definitzeko beharrezkoak diren irizpide eta ezaugarri tekniko eta zeharkakoak zehazten baitira.
- Prestakuntza Dualaren ereduak merkatuaren eskakizunen ikuspegi zehatza ere ematen du, eta hori oso baliagarria da azterketa honetan.
- Eta, azkenik, patronalen, elkarten, enpresa-klusterren eta abarren artean, ikasleen profil hori sortzen lagun dezaketen konexioak ere badaude.



LAN  
ESPERIENTZIA




INGURUKO  
ENPRESEKIN  
HARREMANA



IKASLEEN PRAKTIKAK  
ENPRESEETAN



PRESTAKUNTZA  
DUALAREN EREDUA



PATRONAL, ELKARTE, KLUSTER,  
ETABARREKO ELKARREKIKO  
LOTURA




### 3 – Ikaskuntza Klabeen Identifikazioa

Irakasle-taldeak, zikloko ikaskuntza klabeak, ikasleek lanbide-profil horretarako beharrezkoak diren gaitasunak garatu ditzaten, argi eta garbi identifikatu behar ditu.

Horretarako, ezinbestekoa da irakasle-taldeak ondorengo hauek ezagutzea eta deskribatzea:

- Zikloaren lanbide-profilak ikastetxearen ingurunearen lan-eremuan egingo dituen zeregin nagusiak.
- Zikloaren etorkizuneko profila definituko dituzten ezaugarriak.
- Gainera, irakasle-taldeak Oinarrizko Curriculum Diseinuko Ikaskuntza Emaizten analisia egin behar du (taldekatzeak lehenetsiz, ezarritz edo modu koherentean sailkatuz).

Aipatutako informazio guztiarekin, gaitasun klabeak ezarriko ditu.



## 4 – Gaitasunen Deskribapena

Gaitasun bakoitzaren deskribapenean hiru alderdi azaldu behar dira nahi eta nahi ez:

- Lortu nahi den ekintza.
- Dagokion jakintza-arloa.
- Eta gaitasun hori zein testuingurutan aplikatuko den.

Hausnarketa horren bidez, irakasle-taldeak beharrezko gaitasunen eta lan-munduaren ikuspegi argia lortuko du, eta ikasleek horiek konpontzeko gai izan beharko dute, prestakuntza-ingurunean erronkak sortzeko ideiak biltzeko bidea emanez.



---

# **Errubrika eta Lorpen Adierazleen Diseinua**



# Errubrika eta Lorpen Adierazleen Diseinua

## 1 – errubrika

Errubrika, ikaskuntza emaitza edo gaitasun bat ulertu eta honi buruz kontzientzia hartzen laguntzeko baliabide erabilgarrienetakoa da. Ethazi ikaskuntza-ereduaren baitan, bere eginkizun nagusia, ikasleek gaitasun horiek garatzeko jarraitu beharreko ibilbidea aurkeztea da, eta zikloan zehar ikaskuntza hori lortzeko beharrezkoak diren lorpenak eta urratsak zehaztea.

- Errubriken helburu nagusia zikloan zehar gida izatea eta ikaskuntza prozesua sustatzea da.
- Horretarako, errubrikan, ikaskuntza prozesua deskribatzen duten maila desberdinak banatzen dira, gaitasunaren lorpenerako hainbat etapa zehaztuz.
- Beraz, errubrikak, ikasleei zein irakasle-taldeei ikaskuntza ikuspegi orokor bat eskaintzen die.
- Irakasle-talderi ikaskuntza helburuak argi zehazten laguntzen dio eta, ondorioz, ikaskuntza prozesu guztia erronka bidez diseinatzeko.



Beraz, errubrikan, ikasleek ikastea espero dena lortzeko jarraitu behar dituzten urratsak adierazten duen prestakuntza-ibilbidea zehazten da. Eta maila hauek deskribatzeko, ikasleen ikaskuntza zehatzago irudikatzen duen lorpen adierazleak definitzen dira.

Irakasle-taldeak errubrika sortzerakoan ikaskuntza prozesuari buruz hausnartzea garrantzitsua da.

Ikaskuntza gisa, ikasleak ekintzaren ondorioz bere pentsamendua integratzen dutena ulertuz, eta ez ekintza bera.

Ikaskuntza prozesuaren mailakera zehazterakoan, maila kopurua erabakitzea beharrezkoa da. Gomendioa, 3 eta 6 maila bitartean izatea da, eta zenbaki bikoitia.

Horretarako, Bloom eta SOLO taxonomia hartuko da erreferentzia gisa.


Bi sailkapenetan, ikaskuntza, ikasleek gelan erronka bidez proposatzen diren testuinguruek eragindako ekintzetatik lortzen duten ulermenean oinarritzen da.

Erronka hauek, ikaskuntza gerta dadin aitzakia gisa funtzionatzen dute, ikasleei pentsamendu mota ezberdinak lantzeko aukera eskainiz, adibidez:

- Galderak egitea
- Behaketa
- Elementu ezberdinen arteko erlazioak eraikitzea, etab.

Ekintza hauek pentsamenduan eragiten duten duten heinean, pentsamendu honen bidez, ikasleek ekintza hauek hobetzea eragin nahi da.

Honenbestez, ikasleei hausnarketa uneak proposatzea ezinbestekoa da aipatutako ikaskuntza lortu dadin eta ebaluazioa, hezitzailea eta hezigarria izan dadin, aldi berean.



Jarraian, aipatu ditugun alderdi hauek kontuan hartzen dituen mailaketa proposamena ikusiko dugu.

- 1.maila, ikaskuntzaren oinarriak ezarri behar dira. Helburua ikasleak garatu behar duen gaitasunaren ikuspegi zabala izatea da, zikloan zehar izango duen jomuga eta erabilgarritasuna ezagutzeaz gain, ikaskuntza honekiko inplikazioa eraikitzeko.
- 2.mailan ikasleek gaitasunari buruz duten ikuspegia zabaltzen da, beste gai batzuekin erlazionatu eta beste gai batzuetatik bereizteko gaitasuna garatuz.
- 3.mailan, ikasleak ikasitakoa egoera errealetan aplikatzeko gai dira.
- Azkenik, 4.mailan, praktikan landu duen gaitasunaren inguruko gogoeta egin dezake eta hobetzeko proposamenak edo eta beste testuinguru eta egoeratan aplikatzeko proposamenak egin ditzake.

## ERRUBRIKA MAILEKTA PROPOSAMENA



## 2 – Lorpen Adierazleak

Errubrikak ikaskuntza prozesua diseinatzeko laguntzen digun heinean, lorpen adierazleak ikasleek jakin behar dutena zehaztea ahalbidetzen du. Lorpen adierazleak, beraz, gaitasun maila bakoitzaren berariazko ezagutza teoriko-praktikoak deskribatzeko balio dute.


Lorpen adierazle batek honakoa jaso behar du:

- Aditza, burutuko den ekintza definituko duena. Adibidez: garatu, erakutsi, eraiki, eztabaidatu, definitu, etab. Garrantzitsua da beraz, aditz hau, behagarria, neurgarria eta egingarria izatea.
- Edukia, garatu beharreko ekintzari lotutako gaia edo ezagutza-arloa. Adibidez, muntai-elektrikoa, planoen diseinua, mekanizatua, etab.
- Eta azkenik, testuingurua, ekintza jorratuko den testuinguru edo baldintzak. Testuinguru honek exigentzi eta kalitate maila jakin bat dakar berekin, aipatutako ekintzak bete beharreko ezaugarriak adieraziz. Adibidez, ebidentzietan oinarrituz arrazoitzea, bilduma bat eraikitzea edo zati bat eraikitzea, egoerara egokitzea, kalitate-arauak betetzea, etab.


Aditza edo ekintzak, “zer egin behar dute ikasleek?” galderari erantzunten dio. Edukiak hori burutzeko jakin behar duena adierazten du eta testuinguruak, ekintza hori nola gauzatu behar duen.



### ZER JASO BEHAR DU LORPEN ADIERAZLE BATEK?



**ADITZA → EKINTZA**  
Behagarria, neurgarria  
eta egingarria



**EDUKIA →** Garatu  
beharreko ekintzaren  
gaia



**TESTUINGURUA →** Ekintza  
garatzeko testuinguru edo  
baldintzak, ekintzak bete  
beharreko ezaugarriak eta  
kalitatea



Zer **egin** behar dute  
ikasleek?



Zer **jakin** behar dute  
ikasleek?



**Nola** egin behar dute?


Lorpen adierazleen deskribapena nahi adina zehaztu daiteke.

Errubika orokorra eta lorpen-adierazleen bidez, Oinarrizko Curriculum Diseinuaren ikaskuntzaren emaitzak edo ebaluazio-irizpideak berrantolatzen dira, hau guztia proposamen berrian jasota gera dadin.

Beraz, lorpen adierazleek, ikasleek amaieran egiten jakin behar dutenaren inguruko "out put"a, hau da, eskuratzea nahi dugun ikaskuntza zehazteko balio dute. Errubrikak ikaskuntza-prozesua diseinatzen laguntzen digun bezala, lorpen-adierazleek ikaskuntza hori zehatzagoa eta ikusgarriagoa izatea errazten dute eta ikaskuntza helburu gisa balio dute. Horrela, irakasle-taldeak adierazle horien arabera jarduerak diseinatu ditzake.

Lortu nahi dena helburua, azken finean, ikasturtean zehar egingo den ibilbidearen mapa bat eskura izatea da. Ibilbide mapa horrek, irakasle-taldearen helburu komuna jasotzeko eta ikasleen ikaskuntza-tresna izateko balio behar du. Aldi berean, erronkak edo dinamikak sortzeko erreferentzia gisa balio behar du, eta ebaluazio hezigarria eta hezitzailearen oinarri izan behar du.

## ERRUBRIKA, LORPEN ADIERAZLE ETA OCD-REN ARTEKO LOTURA





---

# **Erronka eta Ebidentziak**



## **Erronka eta Ebidentziak**

Erronkak, Ethazi ikaskuntza-ereduan, testuinguru egokia sortzeko baliabidea dira, ikasleek beren zikloari dagozkion gaitasun teknikoak eta zeharkakoak lor ditzaten. Beraz, ikasle bakoitza egiten ari den ikaskuntza-prozesua agerian utzi behar dute.

### **1 – Erronken Ezaugarri Orokorrak**

Erronkei buruz ari garenean, honakoa argi eduki behar dugu:



- Ikasleak gaitasun multzo bat lantzeko eta beraien garapenean eboluzioa izateko zehazki diseinatuta dauden testuinguruak direla.



- Erronkek, ikasleek lan-eremuan aurkituko dutenaren antzeko testuingurua irudikatzen saiatu behar dute. Garrantzitsua da ikasleentzat motibagarriak izatea



- Ikasleek elkarlanean ebatzi beharko duten egoerak dira non irakasle-taldeak lan-taldeak gidatu eta laguntzen dituzte, ikasle bakoitzak ikaskuntzak eskura ditzaten.



- Erronken-ebazpenaren bitartez, ikasle bakoitzak beharrezko gaitasun tekniko nahiz zeharkakoak garatzea nahi da, beraien hobekuntza-konpromisoari aurre egin ditzaten.



- Irakasle-taldeak, klabeak bezala zehaztu diren gaitasunak entrenatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak integratu behar ditu. Eta ondorioz, gaitasun bakoitzari eskainiko zaion denborak koherentea izan beharko du azken kalifikazio-irizpideekin.



- Erronkan garatzen diren jarduera eta ariketa horiek ikasleen ikaskuntza agerian uzteko balio behar dute, ebaluazio-hezitzailea ahalbidetuz.

## 2 – Erronken Diseinua

Irakasle-taldeak, heziketa-zikloaren helburuak bermatzeko, erronka-sekuentzia bat definitu behar du, ikasgelan ikaskuntzari dagokionez modu progresiboan eta logikoan gara daitezen. Horretarako, gaitasun teknikoak eta zeharkakoak noiz eta nola landuko diren zehaztu behar da, bai eta gaitasun horien lorpen-mailak ezarri ere.

Lortzeko, irakasle-taldeak, erronka bakoitza zehazki diseinatu aurretik, honako galderak planteatzea komenigarria da:

- Gaitasun guztiak aldi berean landuko dira?
- Horrela ez bada, zer orden, neurri eta xehetasun mailarekin burutuko dira?
- Zer ikaskuntza eskuratu behar dituzte ikasleek nahitaez?
- Zenbat denbora emango da gaitasun bakoitza lantzeko?
- Behin gaitasun bat landuta, ondorengo erronketan berriro landuko al da bere ikaskuntza sendotzearen?

Irakasle-taldeak elkarrekin egiten duen hausnarketa horrek ikaskuntza-prozesuaren diseinu ordenatu eta koherentea sortzeko balio du. Horrela, ikasleek gaitasun klabeak eskuratzeko behar adina denbora izango dutela bermatzen da. Behin hori bermatuta, irakasle-taldeak behar besteko malgutasuna du ikasturtean zehar aldaketak eta hobekuntzak egin ahal izateko.

### ZER PLANTEATU ERRONKAK DISEINATZERAKOAN



**Ikaskuntza-prozesu ordenatu, koherente eta malgua diseinatzea, gaitasunen lana eta ikasturtean zehar aldaketak egitea bermatzen duena**

- Gaitasunen aldi bereko lanketa, ala ez
- Xehetasun-maila eta txukuntasuna
- Ikasleek eskuratu beharreko ikaskuntzak
- Gaitasun bakoitzari emandako denbora
- Gaitasun-lanketaren errepikapena, ala ez

Hausnarketa hori egin ondoren, irakasle-taldea aurreikusitako erronka bakoitza diseinatzeko has daiteke. Ethazi ikaskuntza-ereduak 11 urratsetan banatzen duen sormen-prozesu bati jarraitzen diote erronka horiek:

- Erronkaren planteamendua.
- Erronkarekiko Identifikazio eta konexioa.
- Parametroen ezarpena.
- Informazioa lortu eta antolatu.
- Proposamenen sorrera.
- Proposamenen aurkezpena.
- Proposamenaren aukeraketa.
- Jardueren planifikazioa.
- Jardueren exekuzioa.
- Eraitzen aurkezpena.
- Eta azkenik, ikaskuntzarako hausnarketa eta ebaluazioa.




Erronka bakoitzeren diseinuan nahiz guztiak osatzen duten multzoan, hausnarketa momentuak ezartzea ezinbestekoa da ikasleentzat, izan ere, hartutako ikaskuntza-konpromisoez jabetzea erraztuko diete. Beraz, honako alderdi hauek definitzea gomendagarria da:

- Noiz egingo dute ikasleek beraien ikaskuntzari buruzko hausnarketa.
- Ikasitakoa non eta nola jasoko duen.
- Eguneko, asteko zein erronkaren zein momentutan sustatuko den hausnarketa.
- Horretarako erabili behar diren dinamika, ekintza edo baliabideak
- Hausnarketa, taldearekin noiz eta nola partekatu.
- Hausnarketa eta gero sortuko diren Ikaskuntza-konpromiso berriak non jaso.

Erantzun horiek guztiak irakasle-taldearen erronkaren diseinuan txertatu behar dira, ikasleen lorpenak agerian uzteko bidea izango baitira. Kontua norberaren ikaskuntzarako ohitura sortzea da, eta, beraz, irakasle-taldeak ikasleak ildo horretan nola bideratu diseinatzea garrantzitsua da.

## IKASLEEN HAUSNARKETARAKO MOMENTUAK



### DEFINITZEA:

- Hausnarketa noiz egin
- Ikasitakoa non eta nola jaso
- Hausnarketa sustatzeko momentua
- Erabili behar diren dinamika, ekintza edo baliabideak
- Hausnarketa noiz eta nola partekatu
- Ikaskuntza-konpromiso berrien garapena

### **3 – Ebidentziak**

Ebidentziak, irakasle-taldeari ikasleak ikaskuntza-mapak betetzen ari diren eta zer neurritan betetzen ari diren jakiteko aukera ematen dizkieten ondorio, hausnarketa edo emaitzak dira, lorpen-adierazleen eta errubrikaren arabera.

Ikastaroaren diseinuan eta erronken edo aurreikusitako ebaluazio-tresnen diseinuan gai jakin bati buruzko informazioa biltzeko sartu diren jardueren emaitzak dira.

Hau da, ikasleek irakasle-taldeari lortutako ikaskuntza erakusten dioten elementuak dira ebidentziak.

Ebidentzien aukeraketa aipatutako hausnarketarekin bat egingo du, hortaz, ebidentziak zehazteko orduan, ikasleek zer eta noiz ikasiko duten, ikaskuntza horren unerik esanguratsuena zein izango den, zein den momentu horretarako ebidentziarik aproposena eta nola jasoko den kontuan izan behar da.

## **ZER DIRA EBIDENTZIAK?**



#### **BILDUTAKO ARIKETEN EMAITZAK:**

- Ikastaroaren diseinuan
- Erronken diseinuan

- Zer ikasi behar du
- Noiz ikasi behar du
- Ikaskuntzaren momenturik esanguratsuena
- Ebidentziak nola jaso

**Ikasleek  
irakasle-taldeari  
lortutako ikaskuntza  
erakusten dioten  
elementuak dira**

Ikaskuntza mota bakoitza, ebidentzia mota desberdinak behar dituzte. Adibidez, ez da gauza berdina ikasleek prozesu bat ulertu, haren elementuak ezagutu edo haien artean harremanak ezartzeko gai diren ebaluatzea.

Nolanahi ere, garrantzitsuena da, lortu nahi den informazioa ezagutzea eta horretarako baliabiderik egokiena aukeratzea.



Zerbait ulertu duten jakiteko, ikasleen ulertzeko era jasotzen duen ebidentzia mota bat erabili behar da. Azalpen baten bidez izan daiteke, honako euskarrietan:

- Bideo bat
- Portfolio bat.
- Elkarrizketa edo pentsamendu-errutina.



Elementuen arteko erlazioa ezarri dituen ezagutzeko, honako elementuak baliagarriak dira, hala nola mapa mentala, metafora eta abar.



Ordea, elementuak ezagutzen dituen jakin nahi bada, honako hauek erabil daitezke:

- Zerrenda edo checklist bat.
- Galdeketa bat.


Ikasleen ikaskuntzaren ebidentziak jasotzeko beste baliabide batzuk hauek dira:

- Proiektu baten txostena.
- Erronka-dinamiken emaitzak.
- Errubrika zehatzak.
- Lorpenen behaketa.
- Galdera zehatzekin osatutako hausnarketa-egunerokoa.
- Eta feedback bera.

Bestalde, proposatutako tresnen eta ikasgelan sortutako testuinguruaren arabera, ebidentziak ikasgelan parte hartzen duten hainbat eragilerengandik etor daitezke, hala nola ikasleengandik, ikaskideengandik, irakasle-taldearengandik edo beste aditu batzuengandik.

Ikasleek argi badute zer ikasi behar duten, beren ikaskuntza-prozesua agerian uztea errazagoa izango zaie, autoebaluazioa eta koebaluazioa hausnarketarako tresna gisa erabiliz, eta egunerokoa edo portafolioa, horri buruzko ondorioak ebidentzia gisa jasotzeko.

Elkarrekin egindako programazio-diseinu honek aldez aurretik ezarritako eta ikasleek jadanik ezagutzen dituzten ebaluazio-irizpideei erantzun ahal izateko, beharrezko informazioa ematen dio irakasle-taldeari.





---

# **Feedback eta 360°ko Ebaluazioa**



## **Feedback eta 360°ko Ebaluazioa**

Ethazi ikaskuntza-ereduan, ebaluazioak ikasleek beren ikaskuntza eta gaitasunen garapenen gaineko erantzukizuna hartzea sustatzen du. Feedback-a, ikasleek hainbat ikuspuntutatik eta une jakin batean gaitasun horien garapenari buruzko informazioa lortzea ahalbidetzen duen tresna bat da, erantzukizun hori beren gain hartzeko.

### **1 – Feedback-a**

Feedback-ak, ikasleei beraien prestakuntza-prozesuan zehar nola ikusten diren eta nola ikusten duten hausnartzen laguntzen die. Hausnarketa horrek, era berean, beraien gaitasunak eta beraien ikaskideenak garatzeko konpromisoa sustatzen du.

Horrenbestez, sortutako feedback-a eta hausnarketa lagungarriak dira:

- Ikaslea bere ikaskuntzarekiko protagonista arduratsu, gogotsu eta automotibatua izatea.
- Ikaskuntza-prozesu hori sustatu, ikasleei planteatutako jarduerak edo erronkak nola garatzen ari diren jakiteko ebidentziak emanez.
- Eta ikasleen konpromiso-eskuratzea errazteko, irakasle-taldearen laguntzarekin hobekuntza-zirkulua osatzeko jarraipen-modu bat eta egin beharreko ekintzak identifika ditzan.

### **FEEDBACK-AREN ERABILGARRITASUNA**



#### **IKASLEENTZAKO ONURAK:**

- Bere ikaskuntzaren protagonista bihurtzen laguntzen dio
- Erronkaren garapenean bere jarduerari buruzko ebidentziak ematen dizkio
- Hobekuntza-zirkulua osatzeko konpromisoak eskuratzea errazten dizkio

## 2 – Zertan datza Feedback-a?

Feedback-a ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile desberdinen informazioa biltzean datza:

- Ikaslea.
- Beraien ikaskideak.
- Irakasle-taldea.
- Kanpoko eragileak, adituak, enpresetako pertsonak, etab.

Helburua formakuntza-jarduerari buruzko 360 graduko ikuspegi osoago eta zintzoagoa lortzea da, ikasleei ikaskuntza-konpromiso berriak hartzen laguntzeko eta horren garapena eta bilakaera bultzatzeko.

Horretarako, feedback-a xehetasunez planifikatutako estrategia baten parte izan behar du:

- Zikloaren diseinuan.
- Ikasturtearen diseinuan.
- Eta erronka bakoitzaren diseinuan.



### **3 – Feedback-aren Plangintza**

Feedback-a ikaskuntza-prozesuaren diseinuan txertatzea funtsezkoa da, ikasleengan konpromisoak sortzeko eta gaitasunen lortze eboluzio ikuspegia eskaini diezaien. Lan hau irakasle-taldeari egitea dagokio.

Ikaskuntza-prozesuan zehar feedbacka planifikatzeko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

- Lehenik eta behin, ikasle eta irakasle-taldearen arteko konfiantza giroa sortzea funtsezkoa da nun akatsa, ikaskuntza-prozesuaren beharrezko alderdi bezala ulertzen da.
- Feedback-aren helburua argi eduki behar da zikloaren barruan, zer eskuratu nahi den horren bitartez.
- Feedback-aren arrazoiaren definizioa. Hau da, zeri buruz arituko den eta nori zuzenduta dagoen.
- Era berean, maiztasuna eta noiz egingo den zehaztea garrantzitsua da. Hemen gogoratu behar da nahitaezkoa dela feedback formala gutxienez bi aldiz ematea lehenengo ikasturtean eta gutxienez behin bigarren ikasturtean.
- Gainera, aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, momentu bakoitzerako feedback proposena aukeratu behar da: formala, informala, bakarkakoa edo taldekoa, koebaluazioa, heteroebaluazioa, etab.
- Eta azkenik, formatua, ahozkoa edo idatzizkoa.

Plangintza hau egiterako garaian, ikasleek feedback-a hartu-emateko zer maila daukaten kontuan izatea erabakigarria da, pixkanaka eskuratu behar duten gaitasuna baita.



- Konfiantza-testuingurua
- Helburua zikloaren barruan
- Zeri buruz arituko den eta nori zuzenduta
- Feedback-aren maiztasuna: gutxienez urtean 2 aldiz.
- Erabiliko diren feedback motak: formala, informala, ahozkoa edo idatzizkoa, bakarkakoa edo taldekoa, koebaluazioa, heteroebaluazioa...
- Entregatzeko formatua

## 4 – Hausnarketa

Feedbackak ikasleen hausnarketa sustatu behar du. Ikasleek ditu ezagutzak erabiliz egoera berriei erantzuten dien heinean, ezagutza berriak integratzean ditu eta beren pentsamendua berrantolatzen du.

Ezagutza horiek barneratzeko eta testuinguru berrietan erabili ahal izateko, ezinbestekoa da loturak ezartzeko gai izatea.


Horregatik, garrantzitsua da ikasleek ondorengo itenak lantzeko dinamikak proposatzea:

- Hausnartzeko gaitasuna,
- Behaketa
- Arrazoiketa
- Autogaldera
- Eta interpretazioa

Gaitasunak, Ikasleek erronketan emandako ikaskuntza-testuinguruen bidez lantzen dituzte, eta, hausnarketaren bidez, beren pentsamendua prozesuan nola aldatu den egiazta dezakete.

Horrek ikaskuntza pertsonalerako konpromiso berriak ezartzera bideratzea errazten die.

### ■ EZAGUTZAK BARNERATZEA



**Hausnarketa bidez, ikasleek beren pentsamenduak prozesuan nola eboluzionatzen duen egiaztatuko dute**

#### LAN EGITEKO DINAMIKAK:

- Hausnarketa
- Behaketa
- Arrazoiketa
- Autogaldera
- Interpretazioa



**NORBERAREN IKASKUNTZARAKO KONPROMISO BERRIAK**

## 5 – 360°ko Ebaluazioa

Eragile desberdinek ikaskuntza-prozesuan parte hartzearen helburua ebaluazio anitza ahalbidetzea da, hau da, 360 gradukoa.

Ikuspegi honetik, ebaluazioa, inplikaturik dauden eragile guztien parte-hartzea eskatzen duen prozesua da. Bereiziki irakasle-taldea eta protagonistena, baina kanpoko eragileen elkarlana ahaztu gabe:

- Erronkaren ildoan adituak diren pertsonak.
- Enpreseetako tutoreak, etab.

Helburua 360 graduko ebaluazio-prozesu bat gauzatzea da. Prozesu horretan, irakasle-taldeak eta ikasleek zein profesionalek lortutako konpetentzia-mailari buruzko iritzia ematen dute.

### EBALUAZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK



360°ko ebaluazioa honek barne hartzen ditu:

- Autoebaluazioa, ikasleak berak garatutakoa eta beraien ikaskuntzari adierazitakoa.
- Koebaluazioa, ikaskuntza-ikaskideek gauzatuta.
- Eta heteroebaluazioa, irakasle-taldeak burututakoa nun lehen aipatutako kanpoko eragileek ere parte hartu dezaketena.

Hiru ebaluazio mota hauek ikasleen indarguneak eta hobetzeko alderdiak identifikatzeko ebidentzitan oinarrituta egon behar dira.

Ikuspegi anitzeko ebaluazio hauen bidez, ebidentzia gisa aritzen diren ikasleen nahiz irakasle-taldearen ikaskuntza-ikuspegiari buruzko baliotsua den informazioa eskuratzen joaten da ikasturtean zehar; dena, erronkaren testuinguruan abiatzen ari diren ikaskuntza-prozesuak hobetzeko.

360°ko ebaluazio prozesu honen bidez sortzen den informazio guztia kudeatzeko, SET deituriko tresna daukagu, "Skills Evolution Tool" edo "Gaitasunen Garapenarako Tresna" siglei erantzuten duena, zeinen helburua informazioaren kudeaketa erraztea eta ikasleen konpetentzien eskuratze-mailaren garapena ikusaraztea da.

Laburbilduz, ikasleak bere ikaskuntzaren arduradun izan daitezzen eta haren garapenaren kontzientzia har dezaten 360°ko ebaluazioa baliabide lagungarria da, aldi berean hainbat ikuspuntutatik informazioa lortuz, ikasleena bera barne, feedback-aren bidez.

### IKUSPEGI ANITZEKO EBALUAZIOA



---

# Konpromisoak





## Konpromisoak


Ethazi ikaskuntza-ereduan, ikasleek beren ikaskuntzaren protagonista izan behar dutela ulertzen da. Testuinguru horretan, ikasleek beren gain hartzen dituzten hobekuntza-konpromisoak, erantzukizun hori betetzen dutela agerian uzteko modua dira.

Hori lortzeko, hausnarketa da ikasleei non dauden eta noraino iritsi behar duten jakitea errazten dien tresnetako bat. Gogoeta hori ikasturtearen diseinuan sartuta egon behar da, eta, ondorioz, jarduera gisa planteatzen diren erronketan.

Ikasleek konpromisoa hartzen dutenean, hainbat etapa dituen ikaskuntza-prozesua hasteko aukera izango dute:

- Hasieran, ez daki zer ez dakien.
- Ondoren, bere gaitasun ezaz jabetzen da, eta horrek segurtasun eza edo beldurra eragin diezaioke.
- Hurrengo fase batean, ikaslea, onarpen eta ikasteko irekitasun-fasean sartzen da, eta, fase horretan, ikaskuntza-kurba askoz ere eraginkorragoa izaten hasten da. Momentu honetan, ikaskuntza guztia era esanguratsuago batean osatzen da.
- Azkenik, ikasitakoa beste egoera eta testuinguru batzuetan aplikatzea, konponbideak asmatzea eta abar ahalbidetzen dien automatizazio-prozesu bat ematen da ikasleengan.

## IKASKUNTZA PROZESUA



Ikasleek beren ikaskuntzarekiko duten konpromisoaz hitz egiten dugunean, garrantzitsua da azpimarratzea beren konpromiso pertsonaletatik abiatu behar dutela. Kontua ez da, beraz, irakasle-taldeak bere hobekuntzak zein izan daitezkeen erakustea, baizik eta ikaslea bera konturatzea zein hobekuntza lortu behar dituen zikloko gaitasun horiek lortzeko.

Falta zaionaz jabetzea da, eta, horren bidez, aldaketa bat egin behar duela konturatzea.

Aldaketa hori gertatu ahala, ikasten duena automatizatzea lortzen du, eta pentsakera berri hori beste testuinguru batzuetan aplikatzea.

Prozesu honetan, ikaskuntza hainbat eskalatan ematen da. Batzuetan, ikaskuntza txikiak izaten dira, baina batuz joaten dira, gaitasunen lorpenean jauzi handia egiteko aukera eman arte.

Jakina, beldurrak eta erresistentziak ager daitezke. Orduan, irakasleek, horiek identifikatzen lagundu behar diete ikasleei, eta konfiantzazko testuinguru baten barruan ikasteko prozesua erraztu behar diete, beldur horiek gainditzen laguntzeko.

Ikasleak konpromiso berriak hartzen dituenean, horiek, dagoeneko hartu dituen aurreko konpromisoei gehitzen zaizkie, aberasten dira eta sendoago bihurtzen dira. Konpromisoak ikaslearengandik sortu behar dira.

## **KONPROMISOA ALDAKETA ERAGILE BEZALA**



### **KONZIENTZIA HARTZEA**

- Hobetzeko beharra
- Ikasten duena automatizatu
- Ikaskuntza txikiek aldaketa handiak eragiten dituzte
- Irakasle-taldeak beldurra eta erresistentziak gainditzera laguntzeko prest
- Konfiantzazko giroa

Konpromisoei esker, gainera, ikasleek eta irakasle-taldeek, elkarlanean, gelako jarduera egokitu ahal izango dute, ikasturtean zehar esanguratsuagoa edo motibagarriagoa izan dadin.

Horretarako, ikasturtearen hasieran biek jakin eta ulertu behar dute argi eta garbi zer eta nola ikasiko den.

Ikasleen konpromisoa sustatzeko eta ikasleen ikaskuntzan erantzukizuna har dezaten lortzeko, hausnarketa izan daiteke tresna bat. Eta, hausnarketa errazteko edo laguntzeko, ebaluazio-tresnak erabil daitezke, hala nola errubrika edo feedbacka, portafolioa eta egunerokoa, besteak beste.

Hausnarketarako gaitasuna lantzea ezinbestekoa da ebaluazio hezigarri eta hezitzaile bat burutzeko, eta, gainera, errepikatuz eta barneratuz, ikasleei ikaskuntza-ohitura propioa eta eraginkorragoa sortzeko aukera ematen die.

Tresna eta dinamika zehatzak erabiliz, irakasle-taldeak ziklo bakoitzak bere ikasteko ohitura sortzea lor dezake. Horregatik, garrantzitsua da ikasleen hausnarketa bideratzeko modua lantzen denbora ematea.

## **IKASKUNTZAREN EBOLUZIOA KONPROMISOETAN OINARRITUTA**

### **ELKARLANA**



**IKASGELAKO  
JARDUERA  
IKASTURTEAN  
ZEHAR EGOKITZEA**



### **IKASTURTEA**




Lortu beharreko  
ikaskuntzen  
ezagutza eta  
ulermena



Ikasleen  
konpromisoa  
ikaskuntzarekiko  
sustatzeko  
baliabideak



Hausnarketa:  
funtsezkoa  
ebaluazio hezigarri  
eta hezitzaile  
batentzat



Ohitura bat  
sortzea

Ezinbestekoa da ikasleak hausnartzeko eta erronketan txertatzeko une jakin batzuk ezartzea, honako alderdi hauek definituz:

- Norbere ikaskuntzari buruzko hausnarketa noiz egin.
- Ikasitakoa non eta nola jasoko duen.
- Hausnarketa hori sustatzeko eguneko, asteko edo erronkaren unea.
- Horretarako erabiliko diren dinamika, jarduera edo balilabideak.
- Noiz eta nola partekatu gogoetak gainerako taldekideekin.
- Eta hausnarketatik sortuko diren ikaskuntza-konpromiso berriak nola garatu.

Amaitzeko, garrantzitsua da azpimarratzea, gogoeta eta konpromisoak ikasturtearen egiturari txertatzean, ikasleak, protagonista nagusia, ikasteko eta hobetzeko prozesuaren arduraduna izateko helburua sustatzen dela.

## **IKASLEEN HAUSNARKETARAKO MOMENTUAK**



### **DEFINITU BEHARREKOAK:**

- Hausnarketa noiz egin
- Ikasitakoa non eta nola jaso
- Hausnarketa sustatzeko momentuak
- Erabili behar diren dinamika, jarduera edo baliabideak
- Hausnarketa noiz eta nola partekatu
- Ikaskuntza-konpromiso berrien garapena

---

## Calificación



## **Kalifikazioa**

Kalifikazioa ebaluazioaren elementu bat gehiago da. Ikaskurte bakoitzaren amaieran, ikasleek modulu bakoitzean lortutako emaitzei zenbakizko balioa eman behar die irakasle-taldeak.

Horretarako, Oinarrizko Curriculum Diseinuko modulu bakoitzean zehaztutakoa kontuan hartuko da.

Hau da, ezinbestekoa da moduluan espero den ikaskuntzari buruzko talde-hausnarketa eta ikasleek ebatzi beharko dituzten erronken diseinua kontuan hartzea moduluaren kalifikazio-irizpideak erabakitzeko.

## **KALIFIKAZIOA BURUTZEKO**



**OCDKO MODULU BAKOITZEAN  
DEFINITUTAKOA KONTUAN IZAN**

## 1 – Kalifikazioa Zehazteko Irizpideak

Hainbat irizpide daude ikasleen azken nota erabakitzeko:

- Zeharkako gaitasunek eta gaitasun teknikoek azken notan izango duten pisua, modulu bakoitzean. Nahitaezkoa da zeharkako gaitasunei gutxieneko %20ko pisua esleitzea.
- Ikaskuntza-emaitza bakoitzari emango zaion balioa.
- Garrantzitsua da halaber, ikaskuntza zein momentuan eta zein tresnarekin jasoko den erabakitzea. Hau da, ikasleak lortu duen ikaskuntza maila ezartzeko, zein ebidentziatan oinarrituko garen.
- Eta, azkenik, ikasleek zein neurritako ikaskuntza lortzea espero den.

Garrantzitsua da irakasle-taldeak eta ikasleek modulu bakoitzeko kalifikazioaren trazabilitatea eta beharrezko informazioa eskura izatea ikasturtean zehar. Horrela, amaierako nota ikaskuntza-prozesu ebolutibo eta kolaboratibo baten emaitza izango da.

### AMAIERAKO NOTA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK



- |                                                                     |                                            |
|---------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------|
| ■ Gutxieneko gaitasun tekniko eta zeharkakoak modulu bakoitzeko     | ■ Ikaskuntza jasotzeko momentu eta tresnak |
| ■ Zein Ikaskuntza-emaitzak duen garrantzi gehiago modulu bakoitzean | ➤ Ebidentziak                              |
|                                                                     | ■ Lortu nahi den ikaskuntza maila          |

